

2018KO EKAINAREN 29KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko ekainaren hogeita bederatzian, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide eta Joseba Imanol Aran Barandiaran.

Bere ezin etorria adierazi du Marian Zufiria Apeztegia zinegotziak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2018ko ekainaren 15an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-


Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 54 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, EHUN ETA ZAZPI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU EURO ETA HIRUROGEITA LAU ZENTIMO (107.633,64 €)takoa onartzea erabakitzen da.

III.- ZERBITZUETAKO KOORDINATZAILE PLAZA LEHIAKETA-OPOSIZIO ASKE BIDEZ BETETZEKO OINARRIAK.-

Udal honen plantillan hutsik dagoen eta 2018ko enplegu publikoko eskaintzan barneratuta dagoen zerbitzuen koordinatzaile plaza betetzeko oinarriak prestatu dira eta ogasuna eta pertsonaleko batzordearen proposamenaren aurrean, tokiko gobernu batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoarekin, oinarri hauek onartzea hala nola hautaketa prozesua burutzeko deialdia egitea erabakitzen du.

IV.- SAN PRUDENTZIO 15-23KO BERRURBANIZAZIOAREN 4. OBRA EGIAZTAGIRIA ETA OBREN LIKIDAZIOA.-

San Prudentzio 15-23 guneko berrurbanizazio lanen obra zuzendaritza daramaten Idoia Goenaga eta Garikoitz Alkorta arkitektoek eta Estibaliz Igartua arkitekto teknikoak lanen laugarren obra egiaztagiria eta lanen likidazioaren egiaztagiria egin dituzte. Laugarren obra egiaztagiriaren zenbatekoa EHUN ETA BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA LAUROGEITA HAMASEI EURO ETA BERROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (109.696,53 €), BEZ barne, da; eta lanen likidazioaren zenbatekoa berriz ZORTZI MILA BERREHUN ETA LAUROGEITA HAMAIIKA EURO ETA LAUROGEI ZENTIMO (8.291,80 €). Lan hauek Construcciones Artzamendi S.A. enpresa ari da burutzen.



Tokiko Gobernu Batzarrak, obra egiaztagiri hauek aztertu ondoren, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoarekin, berauek onartzea erabakitzen du.

IV.- 19 H.J.A. –LARREATEGI-KO 19.1 BURUTZE UNITATEKO A.30.19.1 ETA A.30.19.2 LURSAILAK LEHIAKETA BIDEZ BESTERENTZEKO LIZITAZIO DEIALDIA EGITEA .-

Udalaren jabegokoak diren Lazkaoko hirigintza plangintzako arau subsidiarioen 19HJA –Larreategi-ko 19.1 burutze unitateko A.30.19.1 eta A.30.19.2 lursailak besterentzea planteatzen da. Besterendu nahi diren bi lursailetarako ezarri den bakoitzaren oinarritzko lizitazio prezioa 130.000,00 € da. Prezio honi dagokion BEZ erantsiko zaio.

Besterentzeko kontratazio espedientea ikusi ondoren, tokiko gobernu batzarrak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Lazkaoko hirigintza plangintzako arau subsidiarioen 19HJA –Larreategi-ko 19.1 burutze unitateko A.30.19.1 eta A.30.19.2 lursailak lehiaketa bidez besterentzeko kontratazio espedientea onartzea.

2.- Besterentze esleipena lehiaketa bidez egiteko lizitazio deialdia egitea.

VI.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Aran zinegotziak (EH Bildu) Orobione Jubilatuen Etxeko tabernaren prezioen inguruan galdetzen du.

Alkateak eskatutako informazioa eman egiten dio.

VII.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA